

# EXCERPTA

3. zenbakia

1986-iraila

<u>gaiak</u>	<u>orrialdeak</u>
Semonides.....	49-50
Katulo.....	51-53
Martzial.....	54-60
Definitiones, etymologiae, explicationes e Sancti Augustini scriptis depromptae.....	61-68
De peccato in Sancti Leonis Magni sermonibus...	69-72

COAENEIVS LVCIVS SCIPIO BARBATVS ENAVOD  
PATRE PROGNATVS FORTIS VIR SAPIENS QVE &c

HONCOINO FLOIRVME COSENTION T R  
DVONORO OPTVMO FVISE VIRO  
LVCION SCIPIONE FILIOS BARBATI &c

NOVINI PLANTIOS MED ROMMI FECID  
DIABIM MACOLNIA FILEM DEDIT

1966

jon gotzon etxebarria  
gernika

SEMONIDES  
(630 K.a.)

Olerki luze bi ditugu bereak:batean bizitzarekiko ezko-  
rra;bestean andreen ala agertzen zaigu.

ᾠ παῖ, τέλος μὲν Ζεὺς ἔχει βαρύκτυπος  
πάντων ὅσ' ἐστὶ καὶ τίθησ' ὄκη θέλει.  
νόος δ' οὐκ ἐπ' ἀνθρώποισιν· ἀλλ' ἐφήμεροι  
ἅ δὴ βοτὰ ζῶμεν οὐδὲν εἰδότες,  
ὅκως ἕκαστον ἐκτελευτήσει θεός.

••• ••• ••• ••• ••• ••• ••• •••

οὕτω κακῶν ἅπ' οὐδέν· ἀλλὰ μυρίαί  
βροτοῖσι κῆρες κἀνεπίφραστοι δῦαι

καὶ πῆματ' ἐστίν.

(1 D)

Diren guztien azken muga, ene lagun, Zeus burrunbariak  
jartzten du eta gogoko duen lekuan kokatzen. Gizonek ez  
dute zentzunik erakusten; aitzitik, igarokorrak izan e-  
ta abereen antzo bizi gara, jainkoak bakoitzari emango  
dion azkena ikusteko arras itsuturik...

Ez dago ezer txarrik gabekorik. Gizonek milaka zoritx-  
ar, ezbehar ustegabekoak eta naigabeak jasan behar i-  
zaten dituzte.

τοῦ μὲν θανόντος οὐκ ἂν ἐνθυμοίμεθα,  
εἴ τι φρονοῖμεν, πλείον ἡμέρης μῆς.

(2 D)

Zentzunez jokatu z gero hildakoagatik ez ginateke ar-  
duratuko egun batez baino gehiago.

πολλὸς γὰρ ἡμῖν ἐστὶ τεθνάναι χρόνος,

ζῶμεν δ' ἀριθμῶι παῦρα <παγ>κἀκὼς ἔτεα. (3 D)

Hilik gauden aldia luzea; halere urte banaka batzu bi  
zi ditugu hala hola.

πάμπαν δ' ἄωμος οὐ τις οὐδ' ἀκήριος.

(4 D)

Ez dago inor bat ere akatsik edo hutsik ez duenik.

τοίας γυναίκας ἀνδράσιν χαρίζεται  
 Ζεὺς τὰς ἀρίστας καὶ πολυφραδεστάτας  
 τὰ δ' ἄλλα φύλα ταῦτα μηχανῆ Διός  
 ἔστιν τε πῆμα, καὶ παρ' ἀνδράσιν μένει.  
 Ζεὺς γὰρ μέγιστον τοῦτ' ἐποίησεν κακόν,

(7 D)

Hauetzek dira Zeus-ek gizonei emandako emakumerik o-  
 nenak eta zuhurrenak. Beste enparauak, Zeus-ek hala na  
 hita, oinaze bat dira eta dirateke gizonentzat.  
 Hauze da eta Zeus-ek eginiko okerrik handiena.

Ἐν δὲ τὸ κάλλιστον Χίος ἔειπεν ἀνὴρ  
 οἷη περ φύλλων γενεή, τοίη δὲ καὶ ἀνδρῶν.

... .. (29 D)

θνητῶν δ' ὄφρα τις ἄνθος ἔχη πολυήρατον ἤβης,  
 κούφον ἔχων θυμὸν πόλλ' ἀτέλεστα νοεῖ

(ibidem)


... ..  
 νήπιοι, οἷς ταύτη κεῖται νόος, οὐ δὲ ἴσασι,  
 ὧς χρόνος ἔσθ' ἤβης καὶ βίотου ὀλίγος  
 θνητοῖς.

... .. (ibidem)

Ederki esan zuen Kiostarrak: orriak nola erne ohi di  
 ren, halaxe gizonak ere...

Gizonak gaztetasun maitagarriaren kemena duen bitar  
 tean, gogoz azkar, bete ezinezko amets asko dagi...

Holako gogoetan dihardutenak buru gitxikoak, ez bait  
 dira ohartzen gaztaroa laburra eta gizonen bizitzako  
 epea txikia dela...



## KATULO

## VII

Quaeris quot mihi basiationes  
 tuae, Lesbia, sint satis superque.  
 quam magnus numerus Libyssae arenae  
 lasarpiciferis iacet Cyrenis,  
 5 oraculum Iouis inter aestuosi  
 et Batti ueteris sacrum sepulcrum;  
 aut quam sidera multa, cum tacet nox,  
 furtiuos hominum uident amores;  
 tam te basia multa basiare  
 10 uesano satis et super Catullost,  
 quae nec pernumerare curiosi  
 possint nec mala fascinare lingua.

---

4:laserpiciium,"laser" ematen duen landarea.Hortik,  
 laserpicifer=laserpiciium ematen duena:LASERPICI-  
 TSUA.

6:Battus Kirene-ren sortzailletzat zuten eta bere hil-  
 obia,antxina,hiri-inguruetan gurtu ohi zuten.

## VII

Lesbia,zenbat musu emanda  
 nahikotuko ote naizen?  
 Laserpizioz ugari dugun  
 Kirene hortan dagoen  
 hondar hauts beste,Libyan,Jupiter  
 sutsua mintza ohi den,  
 Bato zaharra hobi donean  
 datzan horretan,hain zuzen.

Edo gizonen ezkutuango  
 maitasuna,gau isilez,  
 ikusten duten izarrak beste.  
 Katulo eroak gainez  
 egin dezantzat,hola musuka  
 nazazu,begiluzeek ez  
 dezaten zenbat,ez eta ere  
 mihi luze-gaiztoz gaitzets.

# MARTZIAL

Orain gudari arma astunez,  
begi-sandalari lehen.  
Soldautzan eta sendalaritzan  
berdin dakizu egiten.

Oplomachus nunc es, fueras ophthalmicus ante.  
Fecisti medicus quod facis oplomachus. (8, 74)

- 
- ophthalmicus eta oplomachus:berba bien arteko antzaz baliatuz hitz-jokoaren antzekoa egin du hor Martzialek.
  - Ophthalmicus-en esangura argi dago, oraindik ere oftalmologo esaten dugu eta.
- OPLOMACHUS= ὄπλον :arma; μάχομαι :borroka, gudaketan egin.

Lotus nobiscum est, hilaris cenavit, et idem  
inventus mane est mortuus Andragoras.  
Tam subitae mortis causam, Faustine, requiris?  
In somnis medicum viderat Hermocratem. (6, 53)

- 
- Martzial-ek askotan erabiltzen ditu grekozko pertsona izenak; eta sarri esangura berarizkoak, epigramari pipermin edo gatz apur bat gehiago ezartzeko.
- ANDRAGORAS argi ikusten da nola litekeen grekoz.
- HERMOCRATES, berriz, honela: Ἑρμοκράτης

Bainua hartu gurekin, pozik  
 jan zuen afaritxoa  
 eta goizean hilik arkitu  
 Andragoras gizajoa.  
 Faustin, zein ote hain bat-bateko  
 heriotzaren zioa?  
 Ikusi zuen eta, ametsetan,  
 Hermokrate galenoa!

Rustica mercatus multis sum praedia nummis;  
 mutua des centum, Caeciliane, rogo.  
 Nil mihi respondes? Tacitum te dicere credo  
 «Non reddes»: ideo, Caeciliane, rogo. (6, 5)

---

ROGO bi aldiz agertzen da, 2. eta 4. neurtitzean:  
 Lehenengoa ARREN EGITEN DIZUT  
 Bigarrena ESKABIDEA EGITEN DIZUT

Lur-arlo batzu erosi ditut  
diru askoren ordainez.

Zeziliano, mailega, arren,  
dirua. Erantzunik ez?

Berbarik gabe esaten zaude:

"Atzera bihurtu ezetz!"

Horreregatik, Zeziliano,  
eskatzen dizut, mesedez.

---

reddes:

reddo = red gehi do = bir-eman; euskaraz atzera eman.  
Hortik loterian esaten dena: erdaldunek reintegr; er-  
daldundutako herrietako biztanleek, oraindik euskal  
kutsua guztiz galdu ez dutenek, dinero atrás.

Aegrotas uno decies aut saepius anno,  
nec tibi sed nobis hoc, Polycharme, nocet:  
nam quotiens surgis, soteria poscis amicos.  
Sit pudor: aegrota iam, Polycharme, semel. (12, 56)

---

• SOTERIA POSCIS AMICOS 3. neurtitzean  
aditza akusatibo birekin

• POLYCHARME: πολὺς :asko, ugari.  
χάρμα :atsegin; alai garri.

Urtean hamar aldiz gaixo ohi  
zara edo maizago; ez  
zure, bai aldiz, gure kaltetan,  
Polikarme, osasunez  
ondo arkituz gero, lagunen  
soteria galdeginez  
zatoz. Lotsa apur bat, Polikarme:  
betirako gaixo zaitzez!

---

soteria (σωτηρία =salbazioa): arriskuren bate-  
tik irtendako adiskideei egiten zitzaizkien  
opariak.

19 **ANTIFRASI**: "Antiphrasis vero ut contraria signifi-  
cet, non voce pronuntiantis efficitur, sed aut verba  
habet sua, quorum origo e contrario est, sicut appe-  
latur lucus, quod minime luceat!! (De Doctrina chris-  
tiana, lib. III, XXIX-41)

Hiztunaren ahotsak ez du zerikusirik, antifrasik au-  
rkakook esan nahi baditu; aitzitik hitz berarizkoak  
baditu, aurkakotik sortuak. Horretara basabil (abargi)  
argirik biltzen ez duenari esaten zaio.

argi dago latinezko hitz-jokoa: lucus = baso; lucet =  
argi ematen du. Ezinezkoa egin zait euskaraz berdin  
berdin itzultzea eta horregatik erabili ditut bes-  
te bi horiek: basabil, argirik biltzen ez duelako; e-  
do abargi, argirik biltzen ez duelako. Badirudi ego-  
kiago dela basabil; abargi ez bait da berez lucus.  
Baina abargi bai hiztegiek badakarre: bosque ta-  
llar; basabil egokiago litzateke lucus adierazteko.  
Eta jokoari jarraitzeko baso -tik nik basabil ate-  
ra dizut.

Biotatik gurago duzuna aukera; edo zuri besterik  
barruratzen bazaizu, eman horren orde. Bestela, la-  
tinezko testoan bakar-bakarrik dukezu hitzen jo-  
koa zuzen-zuzen emanik. Eta itzulpenaz gain espli-  
kazio edo glosa hori egin behar.



20 **ANTIFRASI** : "Quid quod haec tropica locutio usque ad eam pervenit, quae appellatur antiphrasis, ut dicatur abundare quod non est, dicatur dulce quod acidum est; lucus quod non luceat, Parcae quod non parcant." (Contra Mendacium, X, 24)

Horra nola bilakatu den antifrasi esaera konparatzaile hauek denaren ugaritasuna, minkaitza denaren gozoa; argirik ez eta basabil (edo abargi) eta parkatzen ez dakitenak Parkak.

- berriro lehengoa lucus-basabil/abargi hori dela eta.
- Barka(tu) erabili ohi da orain batuan. Baina berriz ere jokoari jarraitzearen parkatu aukeratu dut, Parcae, Parka, horiekin orijinalak duen antza gorde beharrez.
- PARCAE=PAKAK  
Jaiotzaren eta Patuaren jainkosa erromatarrak.
- PARCO, is, ere, pepercí, aditza, beste alde batetik horixe da: parkatu, barkatu euskarazkoa.  
Eta badaude euskaldunak "eztago parkamenik" gabe "eztago parkerik" esaten dutenak, parke(e)ske esaten den moduan.

#### OHARRAK:

- Antiffrasis: idea bat aurkakoaren bidez agertzea, gehienetan ironiazko entonazioarekin: Hori erantzunaren ederra!, hau da, erantzun oso txarra eman duzu. Hori da jokabide zuzena!, hau da, ezin da hola jokatu.  
(Fernando Lázaro Carreter; "Diccionario de Términos Filológicos"; edit. Gredos, 1977.)
- Berba bat edo berba-multzo bat, berez duen esanguraren kontrakoa ezarrita, erabiltzea; estilistika, ironia edo tabu bati lotu beharzagatik. Esate baterako: Onak gaude! esakerak adorerik eza, etsipena edo horrelako zerbait adierazi lezake.  
(Jean Dubois; "Diccionario de Lingüística"; edit. Alianza; Madrid, 1979)
- Gogoratu: lucus, i, latinez Kikero eta Kintiliano-ren erabileran baso sakratua dela; Bergiliek basotzat hartzen du bere olerkietan.
- Antiffrasi horiek euskaraz batzuek entonazio hutsez egingiten dira eta testo-inguruz: Ederra egin duzu! Onak gaude gu! Beste batzutan entonazioaz gain ezezko esaldia behar da: ez zara makala! Ez da txantzetako gauza!

21 **ARDO**: "Itaque cum audierit atque cognoverit temetum a veteribus vinum appellatum, sed iam ex usu loquendi quem nunc habemus, hoc vocabulum emortuum, propter nonnullos fortasse veterum libros, sibi necessarium deputavit." (De Trinitate, lib. X, I-3)

Antxinakoek ardoari vinum esan ordez temetum deitzen ziotela entzun eta ezagutuz gero, gure egunetako berbakuntzan berba hila, beharbada aurrekoen liburu batzutan bazetorrela eta, beharrezkotzat jotzen.

Arkaismo bat dugu hor. Euskaraz arkaismotzat jotzen bada ere, badugu ardoari buruz bereizkuntza nabarmena: batetik euskalkien arteko gaurko ezberdintasuna eta bestetik lehenagoko batzuenak:

ARDAN(c). Var. de ardao, ardo... en los derivados = Esto parece probar que de todas las variantes, ardao, ardo ardao, ardaun, arno, ano, la original es ardan; como gastanbera prueba que... gastan es el origen de gazta... Bestalde, sagardo eta horien antzera: "ecen oguiaren eta mahatz arnoaren idurien azpian" (Chourio, "Imitaciona"; IV. Lib. XI. Cap.). "Ogui hori eta arno hori" (idem, Meça Sainduco Othoitçac, VI)

(R. M. de Azkue, "Diccionario Vasco-Español-Francés")

Ez ahantz Aimery Picaud-ena: ..vocant... vinum arduum (Mitxelena, "Textos Arcaicos Vascos", 50. orrialdea)

22 **ARRREN EGIN**: "Sane quod hic positum est, deprecabilis esto; alii verbum e verbo, deprecare, interpretati sunt. Sed qui ait deprecabilis esto, vitavi; ambiguum; quia deprecari commune verbum est: nam et ille deprecatur qui deprecationem fundit, et ille cui funditur; dicimus enim, deprecor te, deprecor a te." (Enarrationes in Psalmos, 89, 14)

Ipini ere, hemen otoizlari izan zaitez ipini du; batzuk otoiztu aditzetik erakarri dute. Alabaina, otoizlari izateko esanez, ez dago oker ulertzerik; otoiztu, otoitz egin, bikoitza da: otoitz egiten duenak otoiztu egiten du, eta otoitza egiten zaionak ere bai; esan, horrelaxe esaten dugu: otoitz dagizut eta otoitz dagistazu.

Deprecare aditz arrunta litzateke, pasibara bihurtu litekeena. Baina deprecari deponente, berez pasibazko formarekin aktibazko zentzuna duena. San Agustin-ek dakarren adibidea:

deprecor te = otoizten zaitut

deprecor a te = zuk otoiztua naiz

(otoizten nauzu)

Beste era errazago batez:

eskatzen dizut

eskatzen didazu.

- 23 **AURKALARI-ETSAI-ARERIO** : "Ne tradas me persequen-  
tibus me: quod enim graece dictum est, τοῖς ἐναντίο-  
ις, quidam interpretati sunt, nocentibus; quidam, per-  
sequentibus; quidam, calumniantibus. Miror autem omni-  
um quos in promptu habere potui codicum nusquam me  
legisse adversantibus; cum sine controversia quod gr  
ace ἐν-αντίος, hoc latine adversarius appelletur."  
(Enarrationes in Psalmos, 118, XXVI, 2).

Ez ni utzi aurrean narabiltenen eskuetan; grekoz τοῖς  
ἐναντίοις dioen lekuan batzuk kalte egile, bestetzuk  
jazarle ulertu izan dute; beste batzuk, aldiz, maxea-  
tzaille. Harritu egiten nau, berriz, nola begien aurre-  
an eduki ahal izan ditudan kodizeetan ezeinetan ere  
ez dakarren aurkalarari. Eta ez dago dudarik, grekozko  
ἐν-αντίος, latinez aurkalarari, etsai, da.

- persequens, batzutan aurrean darabilena, beste testo-  
inguru batzutan jazarri egiten duena izan liteke.<sup>1</sup>
- nocens, kaltegin, mesedegin-en antzera, itzuli neza-  
keen. Baina, kalte egile ipini dut, ondorengo jazarle  
horrekin -LE atzizkiaren bidez antzeko izan dadin.<sup>2</sup>

- 24 **AURKIKUNDE** : "Unde et ipsa quae appellatur inventio,  
si verbi originem retractemus, quid aliud resonat, ni  
si quia invenire est in id venire quod quaeritur?"  
(De Trinitate, lib. X, VII-10)

Eta aurkikunde deritzana, hitzaren jatorriari begira-  
tu, eta zer besterik da aurkitu edo bilatu, bila gabil-  
tzanarekin topo egin ez bada?

- Berriz ere zailtasuna hitz-jokoa zehatz aldatzeko:  
invenire = venire in (-ratu)
- Beste era batzu ere izan ditut gogoan:  
ASMAKETA: zer da asmatu, asmotan duzunera heldu ... ?  
BILAKETA: zer da bilatu, bila ari zarenera heldu ... ?  
AURKIKUNDE: zer da aurkitu, aurki (laister edo) denera  
heldu?  
(azkenengo hau, zer esanik ez, azaletarago eginik)
- E z ahaztu beste bi hauen arteko aldea:  
"Creo que se le da a esta palabra casi comunmente y  
por extensión una acepción que de suyo no la tiene.  
Si significación es "encontrar", es decir, dar con u-  
na cosa sin buscarla, topar con alguien, etc. La ace-  
pción de "hallar", es decir, dar con una cosa que se  
ha buscado, corresponde de lleno a la palabra EDIRO

con sus variantes IDORO, EDIREN, etc

(Resurrección María de Azkue; "Diccionario Vasco-Español-Francés :AURKITU)

Aurkitu ed o arkitu oin dala ezin erderazko "indice" atera ditekete. Arkitu erderazko "encontrar" da ta "indice" oriek ez tira zerbait arkitzekoak "para encontrar", ediretekoak "para hallar" baizik. Bilatu gabe, zerbait ez naiz norbaitez arkitzen gera, topo egiten degu. "Indice" orien bidez eztegu topo egiten, bilatu ta ediren bai.

( R.M<sup>o</sup> Azkuek arteka-marteka egindako gertirudia:  
ARDI GALDUA; Bilbo, 1918; Geigarria: EDIRENGU)

(jarraitzeko)

DE PECCATO IN SANCTI LEONIS MAGNI SERMONIBUS (440)

Urte horretan Aita Santua egin zutela dakigu; noiz jaio zen, ordea, ez. Bere sermoietan latin ederra, zehatza, argia eta gozoa darabil. Pentsakizunak eta gogoetak sakonki eta ordena trinko eta era berean gardenez ematen dizkigu. Bitxikeritan galdu gabe, mamintsu ageri zaigu esanetan eta atsegina esakeretan.

(Erabilitako liburuak: "Leon Le Grand, Sermons", 4 tomo, Sources Chrétiennes, Paris; 1964, 1969, 1961, 1973)

1 "gaudeat peccator, quia invitatur ad veniam"

Poz bedi bekataria, barkamenerako deia egiten zaio eta.

2 "Mortalitatis quidem nostrae participem, sed peccati totius expertem"

(Jauna) gure hilkortasunaren partaidea, bai, baina bekatu apurrenik gabea.

3 "Nihil ergo... de peccati lege manavit"

(Jaunaren jaiotzean) bekatu-legetik datorrenik ez dago ezertxo ere.

(In Nativitate Domini Sermo I; 1. tomoa, 66, 68. orrialdeetan)

4 "Et cum in omnibus matribus non fiat sine peccati sorde conceptio"

Ama guztiak egiten dira haurdun bekatuzaren orbanetroa

tartean delarik.

5 "Quo enim paterni seminis transfusio non pervenit,  
peccati se illic origo non miscuit"

Han aitagandiko hazirik ez bait zen isuri, bekatua-  
ren jatorrizkorik ezer ez zen nahasi.

6 "et fides justificat peccatorem"

fedea zintzotzen du bekataria

(In Nativitate Domini Sermo II; l. tomoa, 82, 86. orri  
aldeetan)

7 "Assumpsit formam servi sine sorde peccati"

Otseina egin zen itxuraz, bekatuaren lohiaz gabe.

8 "Peccatum mundi in Jesu Christi placuit Nativitate  
ac passione deleri."

(Jaunaren asmotan) Munduko bekatua Josu Kristo-ren  
jaiotzaz eta heriotzaz ezabatzea hontzat hartu zuen.  
(In Nativitate Domini Sermo III; l. tomoa, 100, 102.  
orrialdeetan)

9 "Ad hoc itaque peccati et mortis vinculum resollen-  
dum... naturam in se suscepit humanam".

Eta horregatik bekatuaren eta heriotzaren lokarria  
askatzeko... gizatasuna beretzakotu egin zuen.

10 "Ut peccatum quod ibi vacuavit sacra conceptio, hic  
mystica tollat ablutio."

Bekatua, han sortze santuak galerazia, (Ama Birjina-  
rengan), hemen garbikunde mistikoak ken dezan.

(In Nativitate Domini Sermo IV; l. tomoa, 112, 114 o-  
rrialdeetan)

11 "Et formam sibi servi in similitudinem carnis pecc-  
ati, incommutabilis Verbi Deitas coaptavit".

Hitzaren jaungoikotasun aldaezinak otsein-itxura  
hartu zuen beretzat, bekatuzko haragiarena, alegia.

12 "Adam praecepta Dei negligens, peccati induxit damna-  
tionem."

Adam-ek Jaungoikoaren aginduak gutxietsiz bekatua-  
ren zigorra erakarri zuen.

(In Nativitate Domini Sermo V ; l. tomoa, 124. 134. o-  
rrialdeetan)

13 "Sic destruendum peccatum fuerat voluntarium et hos-  
tile consilium"

Nahitazko bekatua eta gaiztakeriazko asmoa desegin  
beharrezkoak ziren.

(In Nativitate Domini Sermo VIII; l. tomoa, 166. orria)

14 "Conclusis omnibus sub peccato"

Bekatu-azpian denak atxilo.

(In Epiphaniae Solemnitate Sermo III; l. tomoa, 228 o-  
rrialdean)

15 "Non justos Christus, sed peccatores vocat"

Kristo-k zuzenak ez, bekatariak deitzen ditu.

16 "Non ita igitur delinquentes peccata delectent, ut i-

llos in suis actibus vitae hujus finis inveniat."

Bekatariek ez dezatela atsegirik har bekatuetan, bi-  
zitzaren azkenak beren ekintzetan arki ez ditzan.

(In Epiphaniae Solemnitate Sermo, V; l. tomoa, 258, 262.  
orrialdeetan)

17 "Et quia nullum sine delectatione peccatum est."

Ez bait dago bekatuik atsegirik gabekorik."

18 "Non sit peccator de impunitate securus."

Bekataria ez bedi zigor-ezean ziur egon.

(In Epiphaniae Sol<sup>em</sup>nitae Sermo, VI; l. tomoa, 272, 274.  
orrialdeetan)

(jarraitzeko)

L. G.: BI-937-86